

Heri Aldizkaria

# Otamotz

2003ko iraila 89. alea




## Has dadila festa!

IRITZIZ-IRITZI: JONMIKEL INTSAUSTI

ERREPORTAIA: HERRITARREN OPORRALDIA

IZERDI PATSETAN: JOSETXO MUJICA, BI DOMINA SUHILTZAILE JOKOETAN



oskarbi

oinetakoa

udazkena 03

Secundino Esnaola 8, ZUMARRAGA

Kale Nagusia 34, BEASAIN

Kale Nagusia 25, ORDIZIA



**2003-2004  
IKASTURTEKO  
EUSKARA  
IKASTAROAK**

**ESKAINZA**

EUSKALDUNTZE,  
ALFABETATZE eta EGA.  
Modulo eta ordutegi zabalak.  
Bekak.


**BULEGO ORDUTEGIA**

Goizez: 09:00-13:00  
Arratsaldez: 15:00-19:00

**MATRIKULATZEKO EPEA  
ZABALIK**

16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago Udal  
Euskaltegian.



**oporren ostean indarra beharko duzu...  
euskara beti!**

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK



**URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Labeaga kalea, 40 A (Belaustegi plaza berria) URRETXU Tel./faxes: 943 72 33 10  
euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

# ARGAZKI ZAHARRA



1960an Urretxuko "kanpitoan" aritzen zen futbol taldeetako bati ateratako argazkia.  
Goian: Tirapu, Ugarteburu, Osinalde, Parra, Aizpuru, Askasibar eta Bergara.  
Behean: Del Teso, Ormazabal, Mendijur eta Del Rio.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

**Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

**Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.



## Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2003ko iraila

## Antiguako XX. Musikaldia abian da

Urteroko moduan, iraila heltzearekin batera, musika onenaz gozatzeko aukera dugu Antiguako ermitan. Aurtengoa, Foru Aldundiak Gipuzkoako toki esanguratsu hau ezagutzera emateko sortu zuen Antiguako Musikaldiaren 20. ekitaldia dugu.

Lehen kontzertua Ainhoa Zubillaga Trio taldeak eskaini zuen iraileko lehen larunbatean. Joan zen astean, berriz, Alia Musica taldeak musika judeoespainol kontzertua eskaini zuen. Larunbat honetan, 19:30etan, interpretazioaz gain pedagogia eta musika sorkuntza lantzen dituen Spanish Brass taldeak kamera kontzertua eskainiko du. Talde honek Händel, Bach, Montsalvage eta espainiar musikagileen lanak eskainiko ditu.

Aurtengo Musikaldiko azken kontzertua datorren larunbatean izango da, hilaren 27an, 19:30etan Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren hari-orkestrak Shostakovich, Bach eta Tchaikovsky-ren lanak joko ditu.

## Gurutze Fernández urretxuarrak Athletic-ekin fitxatu du

Gurutze Fernández futbolari urretxuarrak Athletic taldearekin fitxatu du denboraldi honetarako. Gurutze uztaila erdialdean elkartu zen taldekide berriekin eta abuztua bukaeran UEFA Women's Cup txapelketako lehen ligaxka jokatu zuen. Bilbotarrak, bi partida irabazi eta hiru garrena galdu ostean, kaleratuak izan ziren. Gurutzek hiru partidak jokatu zituen eta Austriako txapeladunen aurkako partidaren gola sartu zuen.

Maiatzeko Otamotzen Gurutzeri egindako elkarrizketan azaldu moduan, Gurutzek Fernández urretxuarrak 24 urte ditu eta aurrelaria da.



Urretxu-Zumarraga Ikastolan hasi zen futbolearen, 8 urterekin, eta ondoren Seirak, Eibartarra eta Oiartzun taldeetan aritu da. Horrez gain, Euskadiko selekzioan eta espainiar estatukoan ere jokatzen du.

[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)



ramos

Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

bilintx


Fermin Calbeton, 21  
20003 Donostia  
Tel.: 943 42 00 80  
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda  
zure aukera musika eta liburutan



## Edukiontzi berriak jarri behar dira

Sasieta Mankomunitateak zabor bilketa zerbitzua eta edukiontziak berritzea erabaki du. Aste honetan hasi dira edukiontzi berriak jartzen eta hilabete/hilabete eta erdiko epean zabor, paper eta pote edukiontzi guztiak aldatzea espero da. Bestalde, arropa eta pilak jasotzeko edukiontziak ere jarri behar dira.

Edukiontzi berriek hainbat abantaila dituzte. Edukiontzi bakoitza minutu eskasean hustu daiteke zarata gutxiago atereaz, edukiontzi zaharrek baino kabida askoz ere handiagoa dutenez gutxiago behar dira eta tapa pedala erabiliz altxa-

tzen denez zaborra botatzea errazagoa da. Horrez gain, edukiontzi hauek lurpeko zabor bilketa sistimara egokituak daude. Edukiontzi berriak, hustutzeko orduan, albo batetik altxatu behar direnez, herriko zenbait tokitan edukiontzien kokapena aldatu egingo da.

Edukiontzien gain, bilketa sistima ere aldatu behar da: hemendik aurrera industrialdeetan eta azoketan egurra eta kartoia banandurik bilduko dira, etxeko traste zaharrak ere banandurik bilduko dira, edukiontziak egunero hustuko dira eta sarriago garbituko dira.


## Atletismo taldearen aurkezpena



Joan zen larunbatean Aluminios Alberdi-Kanpanzar Kobate atletismo taldea aurkeztu zen Argixaon. Talde hau inguruotako korrikalari ez-federatuek sortu dute eta 60 kide inguru ditu jada.

## Martínez garaile Goierriko Itzulian

León Ayuntamiento taldeko José Rafael Martínez valentziarrak irabazi du Goierriko Itzuliaren 22. ekitaldia, Jokin Ormaetxearen eta Dailos Díaz-en aurretik. Martínez-ek lehen etapa irabazi zuen. Bederatzi segundu atera zizkien Gaztañaga, Ormaetxea eta Agirrezabalari eta, ondorengo etapetan, lidergori eutsi zion. Santa Barbaran bukatu zen bigarren etapa Fernando Torreses, iazko irabazleak, irabazi zuen. Hirugarren etapa, berriz, Xabat Otxotorenak irabazi zuen.



Herri Aldizkaria  
**Otamotz**

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

**Merkea eta ona!**

**Darmanki**

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaioa, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20  
URRETXU

**ETXABURU**  
merenda-lekua

S. Barbara bidea

☎ 943 72 22 77

URRETXU



**GUREA**

Iturgintza

Bainurako altzariak  
Gas instalazioak  
Berogailuak  
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67  
20700 URRETXU



Jonmikel Intsausti

## Z Polski z uczuciem

Pio Barojak abertzaletasuna bidaiatuz sendatzen den gaixotasuna dela esan omen zuen..., eta aurreko urteotan behin eta berriz entzun izan dugu esaera hau argumentu gisa "abertzale" sentitzen ez direnen artean. Nik ordea, bidaiatuz, abertzale dena abertzaleago eta are gehiago, internazionalista ere bilakatzen delakoan nago, bidaiatzeak sortetxea zein, zaren moduan seme berrizat onartzen zaituen etxea maitatzera eramaten zaituelako. Bai, bidaiatzea ona da, eta euskaldunok gehiago bidaiatu beharko genuke. Izan ere, bidaiatzeak sukaldetik zein aldameneko bailaratik norberaren herriaren penak eta gloriak beste era batean ikusteko aukera ematen du. Eta Poloniatik, nire herriari begirada lasaia bota diot 1.800 bat kilometroko distantzia zuzenetik. Eta begiak minduz so honetan gure Euskal Herrian "normal"-tzat hartzen dugun honako egoerara iritsi garela ohartu naiz:

-Azkeneko 25 urteotan jaso, salatu (baita frogatu ere) diren atxiloketen ondorengo —benerako demokrazian onartu beharko ez liratekeen— torturak eta tratu txarrak, Amnesty International-ek behin eta berriz salatuak hileroko notiziak dira.

-Euskal preso politikoen eskubideen urraketa —eta preso politikoa diot, ez baitzaie aplikatzen besteei aplikatzen zaizkien Espetxe Kodeak onartzen dituen eskubideak— oso larria da: Euskal Herriatik kanpo euskal presoak sakabaneka, presoak senideen bisitek sortzen dituzten gastuak eta auto-istripuetan izandako hildakoak, kondenaren 3/4 beterik duten presoak kartzela-luzapena, kartzelan izandako txapeoak, kolpeak, gose-grebak... gaixotasun kronikoengatik kartzelan dirauten euskal presoak —adibide gisa Bautista Barandallaren kasu lagarria ez dut ahaztu nahi, hesteetako gaixotasun kronikoa izanik kartzelan dago. Eta baita prebentzioz eta oinarri sendorik gabe kartzelaratuak presoak, Miren Josu Aranburu edo Joseba Garmendia herritarrak barruan dira.

-Batasunaren ilegalizazioak Ezker Abertzaleko sektore handi baten errepresentazioa ukaturik utzi du. Honen guztiaren helburua Eusko Jaurlaritzako alderdien banaketa aldatzea da. Nor izango ote hurrengo Lehendakaria?

-Madrilgo sistemarekin bat ez doazen egunkariak ixten ari dira... indarrez —Egin eta Egunkariarekin gertatu zen bezala— edo eta oraingoan samurki eginez —Gararekin egin nahi duten bezala—... adierazpen askatasunaren eskubidea urratu dago.

-Abertzale kutsu duen artista orori ere boikota ezartzen ari zaio: Takolo, Pirritx eta Porrotx, Su ta Gar, La Polla Records edo berriki boikotatuak klubean sartu den Fermin Muguruza adibide ditugu.

-Nafarroan, euskaldunek euskara erabil dezaten oina-

rrizko eskubideen murrizketa... Lingua Navarrorum hura ez omen da nafarrena. Era berean, Frantziako Tourrean euskararen erabilerak izandako kontrola, Ikastolek jasandako irainak...

-Madrildik egunero jasaten ari garen eraso mediatikoa. Lotsa aspaldian galdu zuten, nahikoa da Javier Vizcainoren "El Cocidito Madrileño" liburuak irakurtzea, noraino iritsi garen erakusten baitu.

-Geroz eta lausotuago dagoen botere betearazlearen, legegilearen eta judizialaren arteko distantziak eta irailaren 11ren geroztik, indartu den abertzale den ororen kriminalizazioa. ETA omen da guztiaren errudun eta denok etakideak omen gara.

Baina baita ere:

-ETA erakunde armatuak atentatuekin bonba-autoz edo tiroz hildako poliziak, politikariak, kazetariak, epaileak, funtzionarioak..., bahitutako enpresariak ... Indarra ez da bidea, eta horren froga Lizarra-Garazi akordioaren garaian euskaldunok herri honen alde egin genezakeen guztia agerian geratu zena da.

-Gorpuzainez zaindutako politikari eta kazetariak, epaileak, artistak, enpresariak...

-Kale-borrokak sortutako atentatuak, egunotan azkena Errenteriako Herriko Etxeak jasandakoa...

Aurreko arrazoi guztiak gogorturiko arazo politiko sakon baten isla baino ez dira, eta bestelakorik esaten duena gezurretan ari da. Eta arazo politikori konponketa politikoa ezarri behar zaio. Eta gure politikariek arazo honi irtenbiderik asmatu barik diraute. Noiz konponduko dugu etxean dugun gatazka?

Euskaldunok ez gaituzte jada ezagutzen European Pirinioen bi aldeetan kantatzen eta dantzatzen duen herri bezala, XII. mendean Aymeric Picaud-ek Codex Calixtinus-en idatzi zuen moduan. Espainia demokrazia osoa omen da European eta gauzak dauden moduan ezin dugu asko espero atzerritik.

Euskaldunok eboluzionatu behar dugu, Lizarra-Garazi akordioaren garaian egin genuen moduan. ETAK su-etena ekarri behar du. Ibarretxeren planak termometroa neurtzeko erreminta bat izan daiteke etorkizunean, baina soluzioa ekarriko al digu? Denborak esango du.

Euskal Herriko pertsona guztiak elkarrekin bizi behar dugu. Pertsona guztiak, ideia guztiak Elkarri-k esan bezala, hemen ez dago inor soberan. Elkarriketa da arazo politiko honekin amaitzeko bide bakarra, burujabetasunaren bitartez erabaki behar du herri honek jarraitu nahi duen bidea.

Z Polski z uczuciem, Poloniatik maitasunez... maitasuna falta zaigu gure herrian... ez dakigula falta behintzat etorkizunean. Berau lortzea denon esku dago.

# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

## Lanean hastea gogorra egin al zaizu?



**Esther Zabalegi**

Aurten oso gogorra egn zait, beharbada oso eguraldi ona egin duelako. Dena den, berehala hartu dut laneko martxa.



**Pablo Irizar**

Oraindik ez dut ikasturtea hasi, baina hasteko gogoz nago. Izan ere, aurten unibertsitatean hasi behar naiz, Bilbora noa bizitzera... Dena berria hasteko gogoia dut.



**Ciriaco Fabián**

Ez zait batere gogorra egiten lanean hastea. Oporretan egotea lan egitea baino nahiago dut, baina lanean hasteak ez ditu buruko minik ematen.



**Manoli Arruabarrena**

Etxekoandreok ez diogu sekula lan egiteari uzten. Dena den, nahiago dut hala izatea, ez baitzait ezer egin gabe egotea gustatzen.



**Andoni Salamero**

Aurten eszedentzia eskatu dudanez, nahi dudan gauzetan emango dut urtea. Dena den urteko jarduna lanera itzultzea baino gogorragoa egiten zait.



**Juani Galán**

Aurten lanera itzultzea sekula baino gogorragoa egin zait. Oraintxe bertan hartuko nituzke berriro oporrak. Nire ustez, hobe litzateke noizean behin astebete jai izatea.

Muntaje e Instalaciones Electricas  
**HERCE**  
Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

**TABERNA**

*Peñuratu*  
**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belar zain*

Belardenda, dieta eta errejimen  
elikadura

Labeaga 30 ☎ 943 72 27 80  
URRETXU

**PAKO VIERBUCHER**


Ezkontza erreportajeak  
Argazki estudio eta artxiboa  
Prozesu digitalak  
Bideo profesionala  
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 ☎ 72 11 55 Zumarraga	Labeaga, 43 ☎ 72 16 81 Urretxu
---------------------------------------	--------------------------------------

**URKI**  
liburudenda



Secundino Esnaola, 3  
☎ 943 72 42 98  
ZUMARRAGA



Julian Arin Letamendia

## Anton Arbulu, Zumarragako alkate "foruzale liberalari"

Arretaz irakurri dut, oraindik orain, Diario Vasco egunkarian, Alberto Surio kazetariak egin zizun elkarrizketaren edukia. Egia esan behar badizut, poztu egin nau Alderdi Sozialistaren sektore "euskaltzaleneko" kide zarela jakiteak, eta ez zatozela bat zure alderdian gaur egun nagusiago izan eta sentimendu nazionalari dago-kionean Alderdi Popularraren irizpideekin alde handirik ez duen taldearekin.

Aurrekoa alde batera utzita, aipaturiko elkarrizketan esaten dituzun bi gauzari erreparatu diet bereziki. Batetik, ideologia foruzale liberalarekiko azaltzen duzun atxekitasuna. Bestetik, dotrina horretako agintariak boterean egon zirenean Espainiak izan omen zuen hazkunde ekonomiko eta industrial. Hala diozu zuk, baina historialari orok onartua da, hain justu liberalen agintepean hasi zela ekonomian orohar eta industrian zehazki, Espainiak Europarekin alderatuta izan duen atzerapen kronikoa.

Ulertezina egin zait zeure burua "foruzale liberal" jotzea, kontzeptu antagonikoak baitira bata eta bestea. Liberalak izan baitziren 1820. urtean agintea eskuratzean, eta geroago "Trienio Constitucional" izenez bataiatu zuten aldirian, Estatuaren batasuna bultzatu eta Foruak desagertzea eskatu zutenak.

Garai hartako Euskal Herriak ez zuen Konstituzio haren (Cadizkoaren) beharrik, lehendik ere bai batzuen berea, Forua, euskaldunok espagnolengandik bereizten gintuen politikazko araubide geure-geurea. Gure lurralde honetan, Espainian ez bezala, Foruak murriztu ez ezik, erabat kenduko zituzten arrisku benetakoa izan zen Gerrate Karlisten sorburua.

Ez dizut ukatuko liberal foruzalerik izan ez zenik. Pi i Margall izan zen horietako bat. Beste bat Olave, Sevillan jaiotako militarra, jatorriz eta sentimenduz nafarra, eta gerratean liberalen bandoan borrokatu zena. Biak ala biak, Errestaurazioaren eta Borboien aginte-hartzearen aurreko Foruen aldeko apostua egin zuten. Memoria argitze aldera esan dezadan, liberal foruzale horiek defendatzen zuten foru-sistemak behartu egiten zituela aldirian-aldiko Errege, Erregeordeko eta Korrejidoreak kargua hartu aurretik Foruak errespetatuko zituztela zin egitera.


Eta zu, Arbulu jauna, zein Foruren aldekoa zara? Ez ahaztu aipaturiko liberal foruzale horien gogoko Foruak, lurraldetasunari dagokionez, abertzaleek dugun ikuspegi bera zuela, lau lurraldeen foruak, xehe-tasun batzuk salbu, oinarrian berdintsuak baitziren.

Beste Foru batzuk ere badaude, jakina. Nafarroan 1841. urteko "Ley Paccionada" izenekoarengandik sortua. Eta hegoaldeko beste hiru lurraldeetan 1876.ekoa, Cánovas del Castillok hezurmamitua eta I Gerrate Karlistaren ondoren gelditu ziren eskubide garrantzitsuenak zapuztu zituena.

Azpimarratzekoa eta kontuan izatekoa da, nola liberalek Estatuari eman nahi zioten "modernitate" aldiaren ondoren Primo de Riveraren diktadura etorri zen.

Plazaratzen dizkizudan galdera hauei erantzuteko begikotasunik izaten baduzu, Ibarretxe lehendakariaren planari buruz eztabaidatzeko aukera ere izan genezake.

**Ferretería BRAVO, S.L.**



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK  
-ELEKTRAGAIK  
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina  
☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31  
ZUMARRAGA



# Euskara guztiona delako, alfabeta gaitezen!

UNESCOk agindutako munduko hizkuntzei buruzko txostenak dioenez, gaur egun 5.000 eta 6.000 bitarteko hizkuntza bizi daude munduan, nahiz eta horietako asko hil egingo diren ondorengo urteetan. Txostenaren arabera, euskarak ez du bizirik iraungo mende honen bukaeran. Baina gure esku dago hori ez gertatzea, eta lan egin beharra dugu euskal gizarteak bere egin dezan euskararen aldeko hil ala biziko erronka. Gure herriaren nortasuna ari gara jokatzeko.

1999ko urte bukaera aldera, Urretxu eta Zumarragako Udaletako Euskara Batzordeen ekimenez, bi herriotan euskararen erabilera normalizatzeko jardura plan nagusi bat egiteko prozesuari ekin zitzaion.

Euskalgintzari lotutako jendeak hartu zuen parte lehenengo bilera haietan: bi herriotako ikastetxeak, euskaltegiak, euskara elkarteak, bertso-eskolak... eta bi udaletako euskara batzordeetako ordezkariak.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia oinarri hartuta, bi herriotara egokitutako helburuak eta lehentasunak zehaztu genituen agiri batean, denboran kokatu eta denon artean adostu ondoren, onespina eman zitzaion bai udaletan, bai prozesuan partaide izan ziren erakundeetan. Urtebeteko prozesu luzea egin ondoren, 2000ko urte amaieran etorri ziren aipatutako onespenez horiek.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburua euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzeko eta bultzatzea da. Urretxu eta Zumarragan, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Urrats hauetako bat Urretxu eta Zumarragako biztanleak euskaldunak eta alfabetatuak izan daitezen lortzea da. Eta hori da hain zuzen, beste batzuen artean, euskaltegiolan.

Irakaskuntzan D ereduaren nagusitasuna ikusita, batek baino gehiagok pentsa dezake euskararen etorkizuna ziurtatuta dagoela. Gure ustea bestelakoa da baina. SEI elkarteak Urretxu eta Zumarragan eginiko datu bilketaren emaitzak irakurtzea baino ez dago. Hona hemen datu batzuk: Hamar lagunetik lauk ez dute euskara batere ezagutzen. Bestalde, euskara ezagutu edo ia ezagutzen duten sei horietatik asko ez dira alfabetatuak.

Ezagutza egoera kaskar honek euskararen erabilera eragin lazgarria du: euskara ezagutzen duten haurrak hamarretik zortzi izanda ere, bostek baino ez du erabiltzen eguneroko bizitzan. Gazteen artean, berriz, hamarretik hiruk soilik erabiltzen dute.

Baina, zergatik gertatzen da egoera hau? Helduei eta adinekoei dagozkien datuak begiratu gero, garbi dago ezagutza oso eskasa baldin bada, areago erabilera. Ondorioz, haurrek eta gazteek eskolaz kanpoko eremuetara jotzen dute-

nean (komunikabideak, tabernak, kirola, eta abar) eskolan egiten dutena (hizkuntzari dagokionez, noski) alhora utzi eta nagusien hizkuntzara, gaztelaniara, egokitzen dira.

Horrexegatik da oso garrantzitsua alfabetatu gabeko 2.000tik gorako herritarrak alfabetatzea. Izan ere, askoz segurtasun handiagoz jardungo dute euskaraz maila guztietan.

Era berean, horrexegatik da garrantzitsua euskara ezagutzen ez duten 6.318 lagun horiek euskalduntzea.

Alfabetatu gabeak alfabetatzea eta euskara ezagutzen ez dutenak euskalduntzea Urretxu eta Zumarragan Euskararen Biziberritzean faktore biderkatzaile izango lirake.

Hortaz, Urretxu eta Zumarragako bizilagunoi mezu pare hau zabaltzeko eskatu nahi dizuegu: "Euskara guztiona delako, alfabetatu gaitezte" (Euskaraz aritzeko gai bada) eta "Aprendamos euskara, es patrimonio de todos" (Euskaraz ez badaki).

Ea, bada, Unescok agindutako txostenak iragarri duena gerta ez dadin, guztion artean euskaltegiak betetzea lortzen dugun. Hala bedi!

## Maixabel Igartua: "Alfabetatu gaitezte, merezi du eta!"



Hasi aurretik banuen beldurra; izan ere, gazteek erabiltzen duten euskara hori ulertzea oso zaila egiten zitzaidan. Irratian eta telebistan ematen zituzten mezuak nahikoa ongi ulertzen nituen bezala, izugarri kostatzen zitzaidan Egunkaria eta Argia bezalako aldizkariak irakurtzea. Gaur egun, maila horretan ez dut batere arazorik eta nire garai bateko egoeran egon daitezkeenak animatu nahi nituzke. Alfabetatu gaitezte, merezi du eta!

## Txistua, Santa Ana



Santa Anastasia jaiek berezkoa duten soinurik bada hori txistu soinua da. Izan ere, txistulariek egunero girotzen dituzte herriko kaleak eta, horrez gain, ehundik gora musikariren partaidetza duen jaialdi erraldoia antolatzen dute.

Txistulari taldeak antolatzen duen musika jaialdiak Euskal Jai egunak bezain tradizio handia duela esan daiteke, igande eguerdian Gernikako Arbola plazan egiten zen txistulari kontzertuaren ondorena baita. 80ko hamarkada bukaeran txistulari kontzertuak jaialdiaren antza hartu zuen, txistulariak ez ziren musikariak ere parte hartzen hasi baitziren. 1991n pasa zen txistulari kontzertua musika jaialdia izatera: orduetik jaialdia larunbat gauean egiten da Iparragirre plazan eta bertan herriko ehundik gora musikarik eta dantzarik parte hartzen dute.

Azken urteotan larunbat gaueko

jaialdian musika munduan zeresana izan duten urretuarrak gogoratzen dira. Orduetik jaialdia Ramon Esnaolari, Inazio Barriori, Jesus Segurolari, Joxe Gabilondori, Juan Jose Belaustegiri, Santi Gutierrez, Celestino Pozuetari eta Patxi Urrestarazuri eskaini zaie. Aurtengo jaialdiak Gernikako Arbola kantaren 150. urteurrena, Joxe Olaetxearen jaiotzaren mendeurrena eta Santi Gutierrez gogoratuko ditu. Hori dela eta, musikariek, besteak beste, Joxe Olaetxeak konposatutako lau pieza, Santi Gutierrez eskainitako lau kanta eta Gernikako Arbola joko dituzte.

FAMILIA BABES ASEGURUA, honako guztiak barne:

- MEDIKUNTZA PRIBATUA.
- HORTZ KLINIKAK.
- TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



- BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
- HERIOTZ ASEGURUA.
- ISTRIPU ASEGURUAK.
- BIDAIA LAGUNTZA.

Bidebarrieta, 20 - behea eskuina  
20600 EIBAR  
☎ 943 20 24 70

**La Previsora Bilbaina, S.A.**

Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO  
museoari atxikituriko enpresa

2003ko iraila

## stasietako soinua

### Joxe Olaetxea

Joxe Olaetxea Zumarragan jaio zen 1903ko irailean, Ipintzako etxean. Solfeoa bere osaba Andresekin ikasi ostean, Aberto Garaizabalekin pianoa eta organoa jotzen ikasi zuen. 1935ean Urretxuko organujole izatera pasa zen eta lan horretan 50 urtetik gora eman zituen. Urretxuko parrokiaren organua jotzeaz gain, aisialdi elkarre ezberdinetako eta 36ko gerra aurretik Urretxun sortu zen antzerki eta zarzuela taldeko pianojolea izan zen.

Joxe Olaetxeak bere bizitzaren zati handia Urretxuko parrokiako organujole lanetan eman zuen, bere aurretik Jeronimo Navarrok eta Toribio Navarrok egin zuten moduan. Joxek utzitako lekukoa Agurtzane Albuak hartu zuen, zeinek Joxek konposatutako "Santa Lucía" pieza joko duen larunbateko jaialdian.

Izan ere, organua jotzeaz gain, Joxek abesti asko konposatu zituen; batez ere txistuarekin jotzeko kantak eta kanta erlijiosoak. Larunbateko jaialdian, Goiargik "Popule Meus" kanta erlijiosoa kantatuko du eta txistulariek "Urrechua" eta "Irimoko saltok" joko dituzte.



### Santi Gutiérrez

Urretxun ondare bikaina utzi duen musikaririk bada, hori aurrean joan zaigun Santi Gutiérrez txistularia da. Berrehundik gora dira Santirekin txistua jotzen ikasi duten urretxuarrik eta milaka lan honi esker sortu zen txistulari bandak eskaini dituen pasakalle eta kontzertuak.

Santi Gutiérrez kantabriako San Pedro del Romeral herrian jaio zen, baina sei urte zituela Urretxura etorri zen bizitzera bere amarekin eta lau anai-arrebekin. Santi mendizale sutsua zen eta, garai hartako mendi irteeretan txistua jotzeko ohitura zegoenez, Joxe Perez lagunarekin batera txistua jotzen ikastea erabaki zuen. Horretarako astean behin Ormaiztegiara joaten hasi ziren, Paxkual Larrañagarengana.

Santi eta Joxek mendian jotzeko asmoa soilik zuten, baina irakasteari ekin behar izan zioten. Herrian dantza talde bat sortzeko asmoa zegoen eta herriko txistulariei dantza talde honetako txistulariak izatea eskaini zieten. Txistulariek ezezkoa eman zuten, baina Santi eta Joxe astegunetan gazte talde bati txistua jotzen irakasteko prest agertu ziren. Hala, asteburuan mendira joaten jarraitu zezaketen. Ramon Esnaolak ere beste gazte talde bati txistua jotzen irakatsi zien. Handik gutxira, bi talde hauek elkartu eta Urretxuko txistulari taldea sortu zen.

Taldearen lehen agerraldia 1960ko Euskal Jai egunean izan zen. Osterantzean, Euskal Herri osoan eta Euskal Herrikan kanpo ere jo zuten arrakasta handiz. Markinan, esaterako, frontoian bildutako jendea zutik jartzea lortu zuten.

Santik urte luzeetan jarraitu zuen hutsaren truke Urretxuko gazteei solfeoa eta txistua jotzen irakasten, txistua eta irakaskuntza izugarri maite baitzituen. Txistulari taldeak, Santik hainbeste maite zuen bere bigarren familiak, lau pieza eskainiko dizkio larunbateko jaialdian: Isidro Ansorenaren "Lehenago eta oraingo", Ander Letamendiak eta Lander Zurdok 97an egin zitzaion omenaldirako konposatu zituzten "Shanti" eta "Xanti" eta Pablo Sorozabalen "Gernika" hileta-martxa.



# Santa Anas



## IRAILAK 19, OSTIRALA

Arratsaldean, haurrentzako parkea.

18:30 - Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetan TXOKOLATADA. Ondoren, ERRALDOI ETA BURUHANDIAK (LEKAIKO KULTUR ELKARTEA) aterako dira trikitilari eta dultzaineroen laguntzaz.

19:00 - Pagoetatik Iparragirre plazaraino, UDAL MUSIKA TAILERRA, TXISTULARI ELKARTEA eta ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KALEJIRA.

20:30 - Iparragirre Plazan ALKATEAREN PREGOIA eta KAINOIAREN DANBADA. Aldi berean, ikurriñak jarriko dira udaletxeko balkoi nagusian. Trikitilariak, txistulariak, erraldoi eta buruhandiak, Udal Musika Tailerra eta "AKELARRE" TXARANGA arduratuko dira elkartutako jende guztia dantzaz jartzen.

Ondoren, "AKELARRE" TXARANGA ibiliko da Urretxuko kaleak girotzen, goizaldera arte.

22:30 - Txozna gunean, KONTZERTUA, Berri Txarrak eta Manresako La Vella Patxeko, txozna batzordeak antolatuturik.

23:30 - Gernikako Arbola Plazan, Euskadi Gaztearen DISKO FESTA.

00:00 - URRETXUKO "IPARRAGIRRE BALERDI" MUSIKA TAILERREKO BANDAREN eskutik, DANTZALDIA Iparragirre plazan (eguraldi txarra eginez gero, dantzaldia frontoian egingo litzateke).

Kaleetan zehar "AKELARRE" TXARANGA arituko da.

## IRAILAK 20, LARUNBATA

09:30 - Avenida berrian, Urretxuko baserrietako ABELGORRIEN ERAKUSKETARI emango zaio hasiera; "SECUNDINO ESNAOLA" MUSIKA IKASTETXEKO TRIKITILARIAK izango dira bertan giroa alaitzen.

11:00 - URRETXUKO ERRALDOI ETA BURUHAUNDIAK Pagoetatik irtengo dira Iparragirre plazaraino etortzeko.

12:00 - LUZ IRRATIZALEEN eskutik: SANTA BARBARAKO ERMITATIK, IRRATIZALEEN EMANALDIA.

Haurrentzako parkea.

11:30 - Ganadu lehiaketaren SARI BANAKETA probalekuan.

Jarraian, JOXE AGIRRE eta IMANOL LAZKANO BERTSOLARIEN SAIOA.

12:00 - IDI PROBAK. Partaideak: EGOITZ ARMAOLEA eta URRUZI.

13:30 - Herriarteko Folklore Jaialdian parte hartuko duten Bartzelonako eta Salamancako taldeei ongietorria udaletxean.

15:30 - Santa Barbarako bidean, Odriozolaren plazatxoan, ASPACEREN ALDEKO PLATER TIRALDIA arratsaldeko 8ak bitartean (izen-ematea, arratsaldeko 7ak arte; entrenamenduak, goizeko 10etatik 1a arte).

17:00 - Ederrena pilotalekuan, XXVIII. GASTRONOMI LEHIAKETA hasiko da. Jangaia: ISATSA SALTSAN.

18:00 - BIZNIETOS DE CELEDON TXARANGA kaleak alaitzen hasiko da.

18:00 - IDI PROBEN 2. saioa: PATXI ARANBARRI eta BELARRETA.

18:30 - Kaleetan zehar HERRIARTEKO XV. FOLKLORE JAIALDIAn parte hartuko duten Bartzelonako eta Salamancako taldeen desfilea.

Txozna gunean, Monologoak, Alain Magoa eta Iratxe Muguire, txozna batzordeak antolatuturik.

19:00 - Gernikako Arbola, HERRIARTEKO XV. FOLKLORE JAIALDIA.

Eguraldi txarra eginez gero, jaialdia Aldiri Kiroldegian izango litzateke.

21:00 - Ederrena frontoian, epaimahaiak XXVIII. Gastronomi Lehiaketarako gertatutako platerak dastatu eta gero, bi sukaldari irabazleen izenak ezagutuko ditugu. Ondoren, sukaldari eta laguntzaileek gustu handiz triparatuko dute prestatutakoa Ederrena pilotalekuan.


Afalondoa alaitzeko BIZNNIETOS DE CELEDON txarangaren saioa.

Txozna gunean, KONTZERTUA: Manolo Kabezabolo eta Habeas Corpus.

23:00 - Iparragirre plazan, Txistulariek antolatutako JAIALDI IKUSGARRIA, Olaetxea eta Santi Gutierrez eskainia (eguraldi txarra eginez gero, Aldiri Kiroldegian izango da).

Kaleetan zehar, hor arituko da goizeko 3 terdiak arte BIZNIETOS DE CELEDON txaranga.

00:30 - Gernikako Arbola Plazan, DANTZALDIA KENTUCKY ORKESTRAREKIN, goizaldeko 5ak arte.



# tasiak 2003

## IRAILAK 21, IGANDEA EUSKAL JAIA

10,00.- URRETXUKO TXISTULARI, ZUMARRAGAKO TRIKITIXA ETA IRATZARRI DULTZAINEROen KALEJIRA.

Aldi berean, GOIZEKO EUSKAL JAIALDIA.

11etan - Aldiri Kiroldegian Euskal Herriko herrialde guztietako eta Urretxuko ERRALDOIAK elkartuko dira, gero kalejiran Iparragirre enparantzaraino joateko.

11:30etan hasita eta goiz osoan zehar, hainbat jarduera izango dira Iparragirre plazan, arratsaldeko 2ak arte: sagardo eta txistorra dastapena; Urretxu eta inguruko herrietako artisauak eta Iparraldeko herrialde bakoitzeko artisau bat; AURTENGO GAI NAGUSIA ERLEZAINNTZA izango da.

JAIALDI ikusgarria: herriko trikitrilariak, dultzaineroak, txalapartariak, dantzariak, eta erraldoiek herria girotuko dute eta ekitaldi berezi bat eskainiko dute.

12:30 - MEZA NAGUSIA Martin Deunaren Eliza Nagusian.

17:30 - KARROZEN IBILALDIAREN irteera Mugitegitik. Aurten 10 koadrila ari dira lanean: PITXU, BERDIN JAT, LOKOPOTORRO, URRETXU-ZUMARRAGAKO GAZTERIA, BUZTANGORRI, SKALUAK, BANBUZTANOKER, PRESOEN LAGUNAK, LEKAIKO KULTUR ELKARTEA eta Urretxuko ATERPE jubilatuta elkarteak.

18:30 - Gernikako Arbola Plazan, URRETXUKO TXALAPARTARIEN eta ZUHAITZAREN SOINUA KOLEKTIBOAREN saioa.

19:15 - Ibilaldiko lehenengo karrozak Gernikako Arbola Plazan sartzen hasiko dira.

Denak Gernikako Arbola Plazara heldu ondoren, EPAIMAHAIAREN ERABAKIA jakinaraziko da.

Ondoren, BATUKADA taldeak herriko kaleak girotuko ditu.

Gaztetxean, Middlefinger herriko taldearen kontzertua.

23:00 - Gernikako Arbola Plazan, KEN7 taldearen kontzertua.

23:30 - EUSKARAREN ALDEKO KANDELA PIZTEA, kantu eta musikarekin batera, Gernikako Arbola Plazan.

00:00etan - BEDAIKO INGURUTXOA, dantza herrikoia, Gernikako Arbola plazan.

Ondoren, KEN7 taldearen KONTZERTUA.



## IRAILAK 22, ASTELEHENA KOADRILEN EGUNA

Haurrentzako parkea.

12:30 - Gernikako Arbola Plazan, denontzako ZEZENTXOAK. IRAUNKORRAK txarangakoak arituko dira ikuskizuna girotzen.

Ondoren, IRAUNKORRAK TXARANGA eta koadrilen musika alaiak lagundurik, HERRI KALEJIRA.

14:30 - HERRI BAZKARIA Avenidan.

16:00 - HAURRENTZAKO JOLASAK, Iparragirre Plazan, arratsaldeko 6ak bitartean.

17:00 - Bazkarian erabilitako mahaiak jasoko dira.

18:00 - Gernikako Arbola Plazan HERRI KIROLAK KUADRILEN ARTEAN.

21:00 - KANTU-AFARIA Avenidan. Aurten AMAIA ZUBIRIA etorriko da gurekin batera abestera.

## IRAILAK 27, LARUNBATA

IV. KIROL JARDUNALDI INTEGRATZAI-LEAK - URRETXU SARIA

Miguel Angel Gomezi Agur-omenaldia egingo zaio.

10:00 - Gernikako Arbolan, BOCCIA.

11:00 - Gernikako Arbolan, SLALOMA gurpildun aulkian.

(Eguraldi txarra eginez gero ekintza hauek guztiak Aldiri Kiroldegian egingo dira).

12:00.- Aldiri kiroldegian, SASKIBALOIA (gurpildun aulkian). Taldeak: ZUZENAK (Gasteiz) - GOIERRI (Urretxu).

16:30 - XII. MOUNTAIN-BIKE IBILBIDEA. Izen-ematea dohainik. Aldagie zerbizua eta txirrinduak garbitzeko aukera ere izango da. Irteera Santa Cruz baserri-tik izango da eta ailegaera Goierni K.E.-ren egoitzan.



# Txapela buruan eta

Aurtengo udan ere bost kontinenteetako herrialdetara heldu dira urretxuar eta zumarratar bidaiariak. Bidaiari hauetako batzuek bizitako esperientzien berri izateko asmoz, aurtengo "Urretxuar ibiltarien flaxa" diapositiba emanaldietan parte hartuko dutenekin izan gara.

Diapositiba emanaldi hau Urretxuko Euskal Jaia taldeak antolatzen du jakinmina eta bidaiatzeko grina pizteko eta bidaiatzeko asmoa izan dezaketenei lagungarriak izan daitezkeen esperientziak eskaintzeko asmoz. Aurten, Brasilen, Bolivian, Guatemalan, Kirgizistanen eta Alpeetan izan diren herritarrek ateratako diapositibak ikusteko aukera izango da urria eta azaroan zehar.

Noemi Anduezak, Leire Aranburuk eta Nerea Baezek hilabete eman dute Boliviako Cochabamba hirian, bertako haurtzaindegi batean lanean. Herriko hiru neska hauek aspalditik zuten Hirugarren Munduko herrialderen batera lan egitera joateko gogoia. Batak bestearen nahiaren berri izan zutenean, elkarrekin joatea erabaki zuten. Leirek Azpeitiko Jesusen Alaben Iraurgi ikastetxean lan egiten du eta kongregazio horrek Bolivian ere lan egiten duenez, eskolako mojen bitartekaritzaarekin joan ziren.

Leire, Nerea eta Noemik ez zekiten ondo zer aurkituko zuten Boliviara iristean, baina laister ikusi zuten. "Haurtzaindegia zegoeneko auzoa Cochabambako auzorik txiroenetakoa da. Haur askok gurasoak ez zituzten egun osoan ikusten eta anai-arreba gazteagoen kargu zeuden, gurasoen artean alkoholismo handia zegoen... Haur askori sufri-mendua aurpegian ikusten zitzairen".

Hiru neskek auzoko haurtzaindegiko hezitzaileekin izan ziren. "Haurtzaindegiaren helburu nagusiak garbitasuna eta elikadura ziren. Gure eginbeharra hezitzaileei laguntzea zen. Auzokoak bertakoak ziren eta haurrek bezainbeste laguntza behar zuten: beraiekin egotea, entzutea... Izan ere, oso bizi-

tza gogorra zuten: oso gaztetan haurrak izan zituzten, ez zuten senarrik... Auzoko bizilagunen artean ez zegoen lotura handirik eta gugana bildu ziren".

Bizilagunen arteko ezinikusia zela eta, haurtzaindegia bera ez omen zegoen oso ondo ikusia auzoan bertan. "Hezitzaileak auzokoak zirenez, lana kendu zietela uste zuten eta inbidia zieten. Kanpotik heldutako jendea hobea ikusita dago bertakoa baino".

Auzoan bertan ostatu hartu bazuten ere, herriko hiru neskek bertako bizilagunek baino bizi baldintza hobea izan zituzten. "Logelak, dutxa, sukaldea... zituen eskola ondoko etxetxo batean egon ginen. Gainera, astebururo irten egiten ginen turismoa egitera: La Paz, Copacabana, Titicaca, tropikoa... ikusi genituen. Hegazkinez mugitzen ginen, denbora gutxi baikenuen, errepideak txarrak baitziren eta hegazkina hartzea oso merkea baitzen".

Leire, Nerea eta Noemiri Bolivian eman duten hilabetea motz egin zaie. "Gainera buelta oso gogorra egiten da. Hango erritmora ohitzen zara eta hona itzultzen zarenean jabetzen zara han bizitakoaz eta ikusitakoaz. Hori dela eta, lehen egunetan elkarrekin egoteko premia genuen. Hango jendeari bizi poz pittin bat eman diogu, baina esperientzia guretzat eskarmentu handia izan da. Denok joan beharko genuke halako toki batera daukagun guztia baloratzten jakiteko".

Eurak ere egunen batean itzuliko omen dira. "Denek galdetzen ziguten datorren urtean itzuliko ote garen. Umeak han uztea, zer edo zer gehiago egin dezakezula ikustea... oso gogorra zen. Dirua lortu nahiko genuke hezitzaileek formazio hobea jaso dezaten eta haurtzaindegian psikologo bat jartzeko".

## Bolivia



## ibili munduan

Xabi eta Andoni Ormazabal mendizale urretxuarrak Kirgizistanen izan dira uda honetan. Bi anaiek Khan Tengri (7.010 m.) mendia igo zuten eta, ondoren, Xabik Pobeda (7.439 m.) igo zuen. Iaz Xabi Komunismo mendian izan zen eta, honen bestez, Sobietar Batasuna zeneko bost gailur altuenak zapaltzeko bi mendi besterik ez zaizkio falta. Lortuko balu, mendizaleen artean "Elurretako Gepardoa" izenez ezagutzen den titulua eskuratuko lukeen lehen euskalduna izango litzateke.

Ormazabal anaiek igo zuten lehen mendia Khan Tengri izan zen. Hirugarren saiakeran, eguraldi txarra egiten bazuen ere, gailurrera heltzea lortu zuten. "Jaitsiera oso luzea izan zen. Gaua egin zitzaigun eta banandu egin ginen, ez baikenen gaua igarotzeko elurretan egin genuen kobazuloa aurkitzen". Jaitsiera, luzea izateaz gain, arriskutsua ere izan zen. Izan ere, elur-jausi batek Andoni eraman zuen eta Xabi, berriz, pitzadura batean erori zen. "Azkenean, igoera hasi eta 26 ordura edo, kobazuloa aurkitu genuen".

Handik egun batzuetara, Xabik Pobeda igozeari ekin zion Dimitri izeneko errusiar batekin. Pobeda igoera ere oso korapilatsua izan zen. "5.800 metroko altueran geundela, gu baino pixka bat gorago zegoen ingeles bati soka finkoa puskatu zitzaion eta 1.500 metro erori zen. Bere laguna eta biok lotu eta bila joan ginen. Iritsi ginenean hilda zegoela ikusi genuen eta gorpua jaitsi genuen. Egun pare bat beranduago, berriro Pobeda igozeari ekin genion. Igotzen ari ginela, Chus Lago mendizale galiziarra topatu genuen *bibak* egiten: gailurra egin ondoren, indarrrik gabe gelditu zen eta behatzak izozturik zituen. Dimitrik jaisten lagundu zion eta, ondoren, berriro igozeari ekin genion. Azkenean, gailurrera heltzea lortu genuen".

Andoni lehenengoz saiatu da halako mendi altu bat igotzen. Gogorra izan omen da, baina anaia alboan izatea lagun-garria izan omen zaio. "Alpeetatik Khan Tengrirra salto egin dut eta salto handia da.



Biok ere beldur horrekin joan ginen. Asko entrenatu dugu, baina mendi hauek hanekin baino gehiago buruarekin igotzen dira. Bestalde, gailurrean anaia ondoan izatea oso berezia da. Gainera, gauzak aurpegira esaten dituzu eta hori ona da. Berari, beharbada, nirekin joateak presioa erantsi dio. Niri, ordea, lasaitasuna eman dit".

Datorren urtean, seguraski, Xabierri "Elurretako Gepardoa" izateko falta zaizkion bi mendiak igotzen saiatuko dira: Lenin (7.134) eta Korgenevskaya (7.105). Berriro ere alde batetik edo bestetik dirua lortzen saiatu beharko dute. "Elurretako Gepardoaren proiektua orijinala da eta aprobetxatu egin behar da datorren urtean dirulaguntzak lortzeko. Dena den, aurten ere lan eginda dirua atera dugu: kamisetak atera genituen, txosna jarri, Urretxu eta Zumarragako Udalek laguntza eman digute, Gutik Sport-ek materialean deskontua egin zigun..."

### MURUA


Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



RENEDO argazkiak

Jarunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU  
☎725682 ☎722292



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA


Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13  
ZUMARRAGA



Legazpi, 5  
☎943 726274  
ZUMARRAGA

## Guatemala



Gorka Oruesagastik eta Xabier Urmenetak Guatemalan hiru aste eman dituzte beste bost lagunekin batera. Guatemalan izandako ezagunekin hitz egin zuten eta, beraiek esandakoan oinarriturik, bidaia antolatu zuten. Bidaia bitan zatitu zuten: lehenengo zatian goi-lautadetan izan ziren (indigenak bizi diren tokietan) eta, ondoren, Karibe

eta gainontzekoei guatemalaren bizimodua oso gogorra iruditu zitzaion. "Orain, gainera, hauteskundeetan daude eta jada botuak erosten ari dira. Guatemalar asko hauteskundeetan gertatuko denaren beldur dira, Ríos Mont generalak aurkeztea lortu baitu. Gizon hau boterean egon zen azken 9

kostaldean. Oihanak, maien eraikinek... herritarrak liluraturik utzi zituzten.

Hegazkinean motxila besterik ez zuten eraman, lagunek toki bakoitzean ostatu non har zezaketen eta zer garraio erabili adierazi baitzieten. Toki batetik bestera autobusean mugitzen ziren, guatemalarrak eta euren bizimodua ezagutzeko gogoz joan baitziren.

Gorka, Xabier

hilabeteetan jende asko desagertu eta hil zen. Guatemala 96a arte gerran izan zen eta sekulako gauzak kontatu dizkigute. Ríos Mont honek indigenen kontra sekulakoak egin zituen eta orain beraien botoak erosi behar ditu".

Beraiek han zeudela, istiluak izan omen ziren Ciudad de Guatemalan Ríos Mont-ek hauteskundeetara aurkeztea lortu zuela eta. "Ezagutu ditugun kooperanteek Ríos Mont-ek hauteskundeak irabazten baditu berehala alde egingo dutela diote. Inkestek botu portzentaia txikia lortuko duela diote, baina ezkerreko alderdiak ez fidatzeko esaten ari dira".

Egoera politikoak ez ezik, erlijio ohiturek ere herritarren jakinmina piztu dute. "Erljioari garrantzia handia ematen diote. Txamal maia bat eliza katoliko baten aurrean bere erritualak egiten ikusi genuen eta harriturik gelditu ginen. Esan zigutenez, katolikoak oso azkarrak izan ziren eta elizak maien tenpluen gainean eraiki zituzten. Katolikoek eta maien zenbait irudi antzerakoak zirenez, katolikoa eta aldi berean maia den jendea dago".

Gorka eta Xabier gustura daude egindako bidaiaz. "Gure asmoa Mexiko eta Guatemala ezagutzeko zen, baina hiru aste baino gehiago behar dira horretarako".

Jon Maroto, Iñaki Alvarez eta Oier Plazaola Alpeetan izan dira. Hiru mendizale hauek 20 egun eman dituzte bertan, baina beroaren eraginez elurraren egoera ez zen aproposa eta ezin izan dituzte nahi adina mendi igo.

Jon, Iñaki eta Oierrek janaria erosi, motxilak egin, kotxea hartu eta Chamonix-era abiatu ziren. Lehenago ere bertan izanak zirenez, bazekiten gutxigora-behera non lo egin zezaketen. Marotok eta bere lagunek kalean lo egiteko ohitura dute, nahiz eta toki batzuetan geroz eta zailagoa den. "Frantzia eta Italia kalean lo egin daiteke, baina Suitzan komeri gehiago izaten dira. Urtero berdin joaten gara. Azken finean edozein herritan txoko pilo bat daude. Inguru hartan kanpinak garestiak dira eta bertara dutxatzera soilik joaten gara".

Jon Marotoren ustez kalean lo egi-

teak bere grazia du, nahiz eta batzuetan bere lanak ematen dituen. "Parke batean afora prestatzen geundela, herriko batzuk etorri ziren joateko esanez. Azkenean kanpin baten ondoko zelaira joan ginen".

Hiru mendizaleek igo zuten lehen mendia Dent du Giant izan zen. Ondoren, Suitzara joan ziren Eiggen mendia igotzera. "Mendi hau oso berezia da, tren bere azpitik pasatzen baita. Trenak mendi barruan uzten zaitu eta tunel bat duzu aterpera joateko". Aterpean ez omen zegoen tokirik, baina jantokian lo egiten "utzi" zieten 18 euroren truke. "Gidaririk gabe joan behar ginenez, guk eramandako janaria jan behar genuenez... ez gintuzten begi onez ikusten".

Eiggen mendia igotzeko erraza iruditu zitzaion, beroa zela eta ez baitzegoen ia elurrik eta soka finko asko baitzuden. Handik jaitsi ondoren, Weishorn men-

dia igo zuten. "Handik Chamonix-era itzuli ginen. Oierrek tren hartu zuen etxera itzultzeko eta gu hiru lau egun gelditu ginen han atsedena hartzen". Atsedean hartu ondoren, Italiara joan ziren Cervino mendia igotzeko asmoz. "Gidariak ere ez ziren igotzen, glaziarra erori baita eta orain harriak erortzen ari baitira. Igotzerik ez genuela ikustean, etxe aldera abiatu ginen".





Idoia Agirre Argentina, Brasil eta Uruguain izan da Irungo lagun batekin. Abiatu aurretik bertan izana den jendearekin hitz egin zuten eta, beraiek esanda koan oinarriturik, bidaia antolatu zuten. Toki batetik bestera autobusean joaten ziren, tokian-tokiko jendea ezagutzeko gogoz joan baitziren.

Bidaia gehienak gauz egiten zituzten eta hala eguna aprobetxatzen zuten.

Buenos Airesera heldu eta berehala konturatu ziren zein handia den Argentina. "Buenos Airesetik Kordobara, ondoko probintzira, joan ginen eta mila kilometrotik gorako bidaia izan zen".

Pixkanaka-pixkanaka Argentina iparralderantz joan ziren. Argentina iparraldean izugarri gustatu zitzaizkien hainbat toki ikusi zituzten: Salta herria, Saltatik irtenda 4.500 metroko altuerara igotzen den trena ("bidean sekulako kolore aldaketak ikusten ziren paisaian"), Humauacako arroila, San Ignacio Mimi (jesulagunen misioen aztarnak) eta Iguazuko urjauziak, esaterako.

Argentina iparraldetik Brasil

## Argentina



hegoaldera pasa ziren, baina herrialde honetan ez omen ziren horren gustura ibili. "Argentinan jendea oso adeitsua izan zen gurekin, baina Brasilen oso ezberdina izan zen. Beharbada, argentinarrak eta brasildarrak ez dira oso ondo eramango eta argentinarrak ginela pentsatuko zuten".

Brasilen ikusi zuten tokirik deigarrienetakoa Canela izan zen. "Alemaniarren geundela zirudien. Izan ere, biztanle guztiak ilehoriak eta altuak ziren. Bigarren gerrate mundialean alemaniar pilo bat joan ziren bertara bizitzera eta euren kultura eta ohiturak mantendu dituzte".

Brasiletik Argentinara itzuli ziren itzulerako hegazkina hartzera, baina bidean Uruguain izan ziren. "Bertan bidaiko tokirik ederrenean izan ginen, Cabo Polonion. Arrantza herria zen eta, negua zenez, ez zegoen inor gehiago. Itsasoko otsoak eta lehoiak, pinguinoak, baleak... ikusi genituen lasai baino lasaiago".

Aurtengo bidaia Idoiak eta bere lagunak Hego eta Ertamerikara egin duten hirugarrena da, batez ere hizkuntza ulertzen dutelako. Dena den, han ere gaizkiulertuak sor daitezke. "Argentinako egoera dela eta, oso merkea da bertan oporrak ematea. Hala, mendiko arropa denda batera joan ginen. Dendariari forro polar bat eskatu nion eta txunditurik gelditu zen: forro hitzak kondoia esan nahi du han".

Zer edo zer azpimarratzekotan argentinarrak matea hartzeko duten ohitura azpimarratuko luke. Berak ere matea hartzeko behar den guztia ekarri du. "Matearen kontua asko gustatu zait, toki batera heldu eta eskaintzen badizute taldean onartzen zaituztela esan nahi baitu".

## Alpeak



# BIONA

## AROSZTEGIA

### Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaila:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa  
fundación

# EDURNE

## JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61



Irail honetan Jose Mari Agirre Egaña "Lizardi", Zarautzen jaiotako euskal olerkari handia, Zumarragatik pasatu zela 75 urte beteko dira. Zumarragara egindako bisitaldiaren 75. urteurrena dela eta, Lizardik Zumarragan entzun eta ikusitakoaz Zeruko Argia aldizkarian idatzi zuena gogora ekarri nahi dugu. Artikulu honetan Lizardi penatuta ageri da, "Zumarragako haurrak erdaraz ari baitziren" jolasten ziren bitartean. Oraindik ere, Urretxu-Zumarragako haur asko erdaraz aritzen dira jolasten direnean. Baina baita euskaraz ere; herriko haur-eskolek, euskaltegiek eta euskaltzale guztiek egoera aldatzen lagundu baitute. Egindako bidea begira dezagun eta jarrai dezagun aurrera.

**Argia (1928ko irailak 30)**

## Zumarraga'ko gurasoei

Zumarraga!, Zumarra!... Izen jatorra, euskel lurrin gozoa darion izena... Zere kaleetatik barrena banijoan ni beñola —lenbiziko— ta ona non arki dedan nexka-mutiko xorta polit bat jolasean.

Beti izan zait atsegin eztiago txorien elkar-izketa baño aur-ezpañetako euskera. Iturri emeak basoan uda gorrian eguerdi ondoko geldian, arratsalde asiberriaren kixkalpean eztu neretzat ots emeagorik.

Orrengatik, ba, Euskalerritik banabil ibilli, ta umerik ikusi jolasean, urbiltzen naiz aguro, aien mintzoa atzibearras. Amaika atsekabe, amaika min ere arturik nago, oitura ori dedala bide!

Ta ez makalena egun artakoa... Nexka-mutiko xorta ura erderaz ari baitzan, bere jardunean euskel-ots apurtxoetik naastu gabe.

Esan nion ordea, nere buruari: erdeldun batzun umeak ditu auek, iñola ere, Zumarraga batean ezin bestela. Uste ontan jarraitu natzaio bideari, gero ta zutago belarria.

Ordu beteren buruan banekian ondo berri mingarri bat: Zumarragako aurrik geienak, nik jolasean aurkitutako guztiak beñepein, erdeldunen umeak ziruditelera alegia.

Negargarria eta arrigarri! Gaurdaño etsirik bageunden uri aundietan, Donosti batean, Irun batean, Tolosa batean, gipuzkoarren mintzo gozoa galtzen zijoala, guraso arreak nunbait zakarregitza jota, bere aurren ezpaintxo minberak larrutuko dituan beldurrak edo... Ez gene-

kian, ez nik beintzat, Gipuzkoaren biotzean, Gipuzkoako alderdi jorienaren erdian, erri ez aundi batek, Zumarraga batek, beste aiek bezin ostikopetua zuanik euskera...

Ez nuan, noski, izan egun ura, nere biziko gozoena.

Zumarraga'ko aurren gurasuok: nerekin adiskide-arteko berriketatxo bat egiñez, zatozte...

Aitzin aitziniñean, gure ondotik erriak igaroten ziran, beren erdera-otsa gure belarrietaraño zabaldurik... Beste erriek azpiratzen zituzten, odoletan eskuak busti, beren izen aunditzeakoaz munduko bazterrak bete, eta gero... il: eta berekin, bere izkerak.

Euskalerrian ordea, euskera ordurako aspaldikoa zan, eder ederra zan, oso osoa zan, eta etzuan iltzeko asmorik...

Etorri zan mundura aintziñako erririk aundiena, gañontzeko guztien menderatzalle: Erroma. Erroma arreak ere bazuan bere erdera landua ta ederra: latiña. Urteak joan, urteak etorri, Erroma galdu zan, eta galdu zan latiña... Euskalerrian ordea, euskara ordurako aspaldikoa zan, eder ederra zan, oso osoa zan, eta etzuan iltzeko asmorik...

Latiñaren ondarretatik asi ziran sortzen zenbait izkera berri gaur arrotasunaz beterik ludiaren muturreraño beren izena daramakiten zenbait erdera: castillanoa, prantzesa, italianoa...

Euskerari bost ajola! Aspaldi aspaldikoa baitzan, oso-osoa baitzan, gaurko mintzo aipatu oiek ume jaioberri baldarrak baizik etziranean.

Urteak joan, urteak etorri, gaurko egunera gatoz, ta,...? Euskera erdi galdurik daukagu Euskalerrian..!

Ene! Zer gerta ete! Beste erri zitelen bat sartu zaio indarrez ta odoletan ito ditu euskaldunak, azpiratu ditu, xautu ditu!

Ez enetxoak! orixe baño gutxiago gertatu da. Iñor ezta emen indarrean sartu, iñork ez gaitu jan, zapaldu, ezerezin... Soil-soillik, euskaldunok gure odolaz lotsa izan gara, ta geren aurrei euskaldunantza lapurtzea erabaki degu

Euskera izan da, milla ta millaka urteetan, gure izena ta gure izana, gure jolasetako laguna; gure maitetasunaren adierazbidea, gure gogoarentzako esnea, gure gurasoengandiko ots ezta... Euskera zan gaurdaño, gure antzin-antziñeko asabaekin lotzen ginduzan katea...

Baña guk, milla ta millaka urte oien buruan, lokarri done ori geronek auste erabaki degu; gu ta gure aurtxoan bitartean eten, gure odolekoak iduri eztezen... Erru lotsagarri ori gere gain arteaz ez gera lots, ez gera beldur!

Baña txarki diot. Asi gera lots eta beldur izaten... Zuek behintzat, Zumarragako gurasoek, Euskal-Egunari begira ekin diozute zeuen umei euskera berriro irakasten.

Eztedilla ori egun bateko garra izan: euskaldundu zazute, zuen erri maitagarri ori. Ori gora-bera, zuen umeak jakin ditzakete, gero, bear beste erdera... Baña, len-lenik, biotzak samur dituen artean, itsatsi zaiezute bertan beren odol eta mintzoaganako maitetasun gorria...

# ZORIONAK!



Aitor



Aitor




Alazne



Amaia



Ana



Ander



Andrea



Arrate



Asun



Jon



Begoña



Consuelo



Eli



Eneko



Frank



Garikoitz



Idoia



Iker




Inazio



Jaione



Jesus



Joaquin



Jone



Jonmikel



Jose Angel



Jose Mari



Joxean



Joseba



Joxepa



Josu



Josune



Josune



Julen



Estitxu



Karen



Laura



Lide



Lierni



Lourdes



Luis



Maialen



Manolo



Maria Jesus



Marijo



Marko



Marta



Mattin



Mikel



Mikel



Mikel



Miren



Naiara



Nerea



Oihana



Leire



Raquel



Raquel



Saioa



Tim



Unai



Urko



Xabier



Aitor



Saioa

**Zorionak denei eta ondo pasa Santa Anastasiak!**

## Suhiltzaile oli

### Jose txo Mujikak bi domina lortu ditu poli


Jose txo Mujika suhiltzaile zumarratarrak uztaila bukaera eta abuztua hasieran Bartzelonan izan ziren Munduko Suhiltzaile eta Polizien X. Jokoetan bi domina irabazi zituen. Jose txo Euskal Herriko triatloilari onena da beterano mailan. Hala, Bartzelonako jokoetan triatloi frogan eta hainbat txirrindularitza frogatan parte hartu zuen. Triatloian urrezko domina lortu zuen bere mailan eta txirrindularitzan, berriz, zilarrezko domina.

#### Nolatan izan zenuen suhiltzaile eta polizien jokoan berri?

Suhiltzaile parkean geundela izan nuen joko hauen berri duela bi urte. Orduan Indiannapolisen izan ziren eta pixka bat mugitzeko asmoa banuen, haruntza joateko dirua behar baita. Ertzaintza uste dut joan zela, dirulaguntza izan, eta beste batzuk ere hala joan ziren. Nik, anaiarena gertatu eta asmoa utzi egin nuen. Banekien 2003an Bartzelonan zela. Aurten lehenengoz hemen inguruan izan da, amerikanoek antolatzen baitute. Neure inguruan ez nuen jende asko ezagutzen joateko amorruekin, baina joatea erabaki nuen.

#### Zein kiroletan eman zenuen izena?

Hiru frogatan apuntatu nintzen: txirrindularitzan erlojuaren aurka eta linean eta triatloian. Diputazio barruan dirulaguntzaren bat lortzerik zegoen galdezka hasi nintzen, baina ez omen zegoen ezer kontenplaturik eta neure kasa joatea erabaki nuen. Gastua handi samarra izan da, ige-



riketa mundialak parean tokatu baitziren eta Bartzelonako hotel guztiak hartuta baitzeuden gainera.

#### Parte hartzeko baldintzaren bat bete behar al zen?

Suhiltzailea edo polizia izatearekin nahikoa zen. 10.000 lagun inguruk parte hartu genuen eta denetarik zegoen: batzuek maila ona zuten eta beste batzuek, berriz, sekulako tripa.

#### Zer nolako giroa topatu zenuen bertan?

Gasteizko suhiltzaile batzuekin kontaktatu nuen eta beraiekin izan nintzen. Bestelakoan, suhiltzaileak eta mota guztietako poliziak zeuden bertan: goardia zibila, polizia nazionalak, udaltzainak, kartzeleroak... Kristoren parafernalia da, Olinpiada baten modukoa: 10.000 kirolarik parte hartu genuen, akreditatu egin behar da, txartela lepotik eraman... Suhiltzaile eta

## mpikoa zi eta suhiltzaileen jokoetan

polizi amerikarrek antolatzen dute, baina Bartzelonan bertako suhiltzaile eta poliziek, udaletxeak eta Generalitatek parte hartu zuten antolaketan. Bilboko erakusketa aretoa adinako lokala zuten eta bertan kirol bakoitzak bere saila zuen.

### Zer moduz aritu zinen?

Uztailaren 25ean joan nintzen, hilaren 27an triatloia nuen, abuztuaren 1ean erlojuaren aurkakoa eta 2an errepideko froga. Triatloi frogan igeriketa Bartzeloneta hondartzan izan zen (1.500 metro), gero bizikletan 40 kilometro egin genituen eta 10 kilometro korrika. Hiru irteera egon ziren, 400 lagun pasak parte hartu baikenuen. Igeriketa ez da nire fuertea eta lan hori bukatu nuenean dozena erdi bat banituen nire aurretik. Bizikletan jende mordo bat harrapatu nuen, baina gehiegi ez genuen kontrolatzen, kategori ezberdinetakoak elkarrekin atera baikin. Froga ikusten ari zen Donostiako lagun batek esan zidan aurretik zenbat nituen, korrikan lehenengo harrapatu nuen eta froga irabazi nuen neure kategorian. Saikakapen orokorrean 25. gelditu nintzen. Maila ona zegoen, gure kategorian guztira 70 baikin eta 10 lehenen artean txekiar bat, amerikar bat, australiar bat... gelditu baitziren.

### Ondoren erlojuaren aurkako frogan parte hartu zenuen...

Triatloian oso gustura gelditu nintzen, baina ondorengo bi egunetan tripako minarekin izan nintzen. Bi egun horietan jan gabe izan nintzen eta, erlojuaren aurkako egunean afaldu nuen arren, indarrak gabe nengoela ikusi nuen. Hala ere, froga ona egin nuen eta bigarren gelditu nintzen belgiar baten atzetik. Hurrengo egunean errepide frogan parte hartu nuen. Sekula pelotoian ibili gabea nintzen eta 150 lagun aritu ginen zirkuitu nahiko gogor eta arriskutsuan. Gainera, irteeran arazo bat izan nuen eta atzealdean atera behar izan nuen.

Aurrealdekoak harrapatu ahal izateko kriston esfortzua egin behar izan nuen arren, azkenean seigarren postua lortu nuen. Gustura gelditu nintzen, oso maila ona baitzegoen.

## “Montjuic-eko inaugurazio ekitaldia olinpiaden antzekoa izan zen niretzat”

### Zer nolako esperientzia izan da?

Oso esperientzia ona izan da. Oso herrialde ezberdinetako jendea ikusten zen, sekulako antolaketa zegoen, erlijio guztiko-entzako mezak zeuden... Montjuic-eko inaugurazio ekitaldia ere sekulakoa izan zen, olinpiada batzuen antzekoa izan zen niretzat. Ni neu bakarrik nengoen eta Gasteizkoekin desfilatu nuen. Arazo txiki batzuk izan ere izan genituen. Gasteizkoek eta ertzainek ikurriñak zeramatzaten eta poliziek makila kendu zieten "arazoak egon ez zitezen". Hala gu ikurriña eskuan geundela joan ginen eta besteak mastilarekin. Bestalde, pantaila erraldoian ez gintuzten atera eta jokuen bideoan ere ez ginen ageri.

### Hurrengo ekitaldian ere parte hartzeko asmoa al duzu?

Bai, kirol gehiago egitera lasai asko joan daitekeela ikusi baitut. 2005ean Quebec-en izango da eta polita izango litzateke joatea. Pixka bat mugitzen hasi beharko dut, handik edo hemendik laguntzaren bat lortzeko. Ez da erraza izango, baina bi domina lortu ditut eta ea horrek laguntzen didan. Diputazioak lagundu beharko ligukeela iruditzen zait, baina ez naiz eskatzearen zalea.



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



**OSTATU ITSASO**  
☎ 943 88 03 15 - Itsaso

**PLAZAOLA**  
**ITURGINTZA**


Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



## Jonpol Agirre

Jonpol Agirre urretxuarrak Ikastolan eta Lizeoan O.H.O. eta batxilergo ikasketak egin ondoren, Oñatiko ETEOn marketina ikasi zuen. Ikasketak bukatu eta berehala Legazpiko Plasnor-en hasi zen lanean, aitarekin batera.

Jonpol aski ezaguna da Urretxun, kalezalea delako, herriko saskibaloiairen alde lan handia egiten duelako eta, batez ere, herriko jai ezberdinen antolaketan inork gutxi bezala parte hartzen duelako.

Ikastola-Urmek taldean hasi zen saskibaloian jokatzeko. Ondoren, Goierri taldean aritu zen. 22 urterekin jokatzeari utzi zionetik, entrenatzaile eta delegatu lanetan aritu da. "Herriko saskibaloiak garai hobeak ezagutu ditu, baina ondo gaudela esango nuke. Jokalariak baditugu, baina akaso entrenatzaile eta delegatu gehiago beharko genituzke".

Aurten ere, urteroko moduan, Jonpol Santa Anastasietako festa batzordean lanean aritu da. Badira jada 15 bat urte koadrilakoekin batera festa batzordean lan egiten hasi zela. "16 urterekin edo koadrilakoak festa batzordera joaten hasi ginen. Urte batean, karrozeroen artean giro oso ona zegoela eta, Euskal Jaia taldea sortzea erabaki genuen". Ordutik, Euskal Jaia taldeak, Euskal Jai eguna antolatzeaz gain, beste hainbat ekimen ere aurrera atera ditu: "Urretxuar ibiltarien flaxa" diapositiba emanaldia, aurreko urteko Euskal Jai egunaren bideo emanaldia... Jonpoleon dioenez, lehen baino askoz ere jende gutxiagok parte hartzen du festa batzordeko bilertan eta hori kezkatzekoa da. "Lehen 30 bat lagun agertzen ginen eta orain, berriz, askoz ere gutxiago. Kalean, berriz, denok ederki asko pasatzen dugu...".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Realeko erdiko erdilaria, Satrustegi nire idoloa baitzen.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Zinera joatea eta lagunekin ibiltzea.

### -Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

### -Saskibaloia jokalaria bat?

Joe Dummars.

### -Entrenatzaile bat?

Chuck Daily eta Valentin Berriotxo.

### -Gustuko saskibaloia taldea?

Taugres eta Detroit Pistons.

### -Taugres ala Reala?

Uf... bakoitza bere tokian.

### -Zein duzu garagardorik gustukoena?

Erdinger, gariz egindako garagardoa.

### -Urretxuko jaietan gustukoena duzun ekitaldia?

Ostiralean bizi den giroa atsegin dut, kalean nabari den festa usaina.

### -Zer berrikuntza sartzea gustatuko litzaizuke?

Play-back-a eta desfile umoristikoa berreskuratzea gustatuko litzaizuke.

### -Ileheriak ala beltzaranak?

Denak.

### -Egindako azken oparia?

Kamiseta bat eta garagardo botila bat.

### -Eta jasotakoa?

Garagardo pitxar bat.

### -Data bat?

Urretxuko festak: San Juanak, Santa Anastasiak, San Martinak...

### -Neska eta mutil izen bana?

Ane eta Mikel.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

Eskutara datozkidanak.

### -Gustuko telebista saioa?

Pelikulak.

### -Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano, Operación Triunfo...

### -Liburu bat?

Ken Follet-en "Los pilares de la tierra".

### -Filme bat?

"Sin perdón".

### -Gustuko abestia?

Rantxeraren bat, adibidez.

### -Soinu bat?

Bibolinarena.

### -Usain bat?


Belarrarena, euria egin ondoren.

### -Janari bat?

Txuleta.

### -Ura ala...

Garagardoa.



# MERKA-UROLA ALTZARIAK



*Ondo pasa Santa Anastasiak!*



Mugitegi, 17 - Tel./fax: 943 72 58 28 - URRETXU

# Santa Anastasiak 2003

*Urretxuko giroa!!*



## Urretxuko Hamaika Tabernari

Florida • The Intrepid Fox • Laket • Motz  
Goiko-Kale • Ezkurra • Navarro • Osaba  
Avenida • Buhame • Aldapa

# Ondo pasa jaietan!